




Intermón
Oxfam

Antsorenatarrak, detektibe pribatuak

G i n k a n a



Antsorenatarrak, detektibe pribatuak

G i n k a n a



Intermón
Oxfam

Sortaren zuzendaritza: Raquel León

Aholkularitza-batzordea: M^a Àngels Alié, Carme Batet, Mireia Claverol, Anna Conangla, Montse López, Juan Manuel Matos, Laura Mendoza, Elena Millá, José Palos, Ferran Polo, Vanessa Quintana, Maria Rico

Itzulpena: Jexuxmari Zalakain

Ekoizpenaren koordinazioa: Elisa Sarsanedas

Azalaren eta barruko diseinua: Lluís Torres

Pere Tarrés Fundazioarekin elkarlanean

1. argitaraldia: 2003ko ekaina

© Autoretza: Carles Cuberes

© Apaingarriak: Àngel Sauret

© Intermón Oxfam

Roger de Llúria, 15. 08010 Bartzelona

Tel. 93 482 07 00. Faxe. 93 482 07 07. E-mail: info@IntermonOxfam.org

ISBN: 84-8452-214-8

Lege-gordailua

Inprimaketa: Gràfiques Castellbisbal
Espainian inprimatua

**3**

Sarrera

4Ginkanaren
fitxa teknikoa**6**Frogen
deskripzioa**11**

Azken ondorioak

11Ibilbideen
eskema**12**Froga bakoitzerako
material grafikoen
zerrenda**12**Txartelen
kokapen-mapa
eta testigantzak

*Ginkana honen bitartez, merkataritzaren eta munduko ekonomia-
ren funtzionamendua hurbildu nahi zaie neska-mutilei, eta, aldi
berean, merkataritza justuaren zein kontsumo arduratsuaren
alternatiba. Metodologia ludiko eta bizikizunezkoa erabiliz,
nazioarteko merkataritzari buruzko maleta pedagogikoarekin
batera, dinamika osagarria izan nahi du, eta Lehen Mailako
Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetarako zuzendua da.*

*Neskak eta mutilak detektibe-agentzia bateko kide dira, eta era
askotako ikerketak egiten dituzte. Gaurkoan, mezu bat jasoko
dute, non GKE batek ikerketa bitxi samarra eskatzen dien.
Agentziaburuak (hezitzaileak) detektibe guztiak (neskak eta
mutilak) batuko ditu, eginkizun bitxi horren berri emateko: ez da
hilketa edo lapurretaren bat ikertu behar, egunero darabiltzagan
gai batzuk baizik, ustez erabat inozoak eta "normalak" dirudi-
ten arren, sakonean kontu susmagarri anitz ezkutatzen baiti-
tuzte.*

*Helburua hauxe da, alegia, aipatutako gaien ekoizpen-prozesua-
rekin zerikusia duten objektuen istorioa berreraiki, pertsonaia
batzuk ezagutu, hainbat informazio bildu eta zenbat proba
egitea.*

*Ikasleek, launako taldetan banaturik, ibilbide zehatza egin
beharko dute hainbat proba hausnartuz eta zenbait testigantza
bilduz, ikerketa zuzen burutu eta bildutako guztia batera jartze-
k
o
,
azkenean.*



2. Ginkanaren fitxa teknikoa

1. **Adina:** Lehen Mailako Hezkuntzako 2. eta 3. ziklokoak
2. **Jarduera-mota:** ginkana
3. **Jardueraren iraupena:** ordu eta erdi + beste ordu erdi, batera jartzeko
4. **Parte-hartzaileak:** 24 ikasleko gela

5. Berariazko helburuak:

Ikasleek ondo ezagutzen dituzten egunero erabilitako hainbat gaien ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuan parte hartzen duten eragile eta pertsona batzuk ezagutzera, munduko edozein tokitakoak direla.

Prozesu horretan gertatzen diren injustiziaz bizi-bizi aurkitzea.

Ahal den neurrian, beste alternatiba edo ekimen batzuk ezagutaraztea, adibidez, merkataritza justua eta kontsumo arduratsua.

6. Jardueraren deskripzioa:

Detektibe guztiak baturik (neska-mutilak, alegia), hezitzaileak GKEaren gutuna irakurriko die; gutunean, lan berezi samarra egitea eskatzen zaie: ustez erabat normalak izan arren, zenbait kontu susmagarri ezkututzen dituzten gai batzuk ikertu behar dituzte. Launa ikasleko taldetan banaturik, talde bakoitzak gai bat ikertuko du.

Aipatutako gaiarekin zerikusia duten hainbat kolektibo edo entitate ezagutuko dituzte, testigantza eta proba batzuetatik abiatuz. Hartara, puzzle bat osatzen duten piezak lortuko dituzte, gai jakin baten ekoizpen-prozesua modu grafikoan esplikatu duena. Bost puzzle-pieza lortuko dituzte, proba bakoitzean bana, salbu lehenengoan, non ez duten piezarik izango, sarrera baino ez baita. Azkenean, behin ibilbidea burututa, talde bakoitzak bere puzzlea muntatuko du (osotara 6 puzzle, talde bakoitzak berea), baina espazio bat hutsik geratuko da. Espazio hori hezitzaileak osatuko du azkenean, seigarren piezarekin, zeinean esperantzaz beteriko esaldi bat dagoen, merkataritza justua deritzon alternatibari buruzkoa, hain justu.

Gelan edo, erdigune zabala antolatuko da, hezitzailearen kokaleku izango dena. Puntu hartatik irakurriko da GKEaren gutuna eta lehenengo proba. Hori eginda, informazioa eta testigantzak bilduko dira, eta probak bide-orriaren arabera osatu. Hara nolakoa den funtzionamendua:

- Haurrak bakarrik edo taldean joango dira lehen testigantzaren bila (pertsoneiaren marrazkia panel batean).
- Aurkitu ondoren, informazioa irakurriko dute.
- Hezitzailearen ingurura itzulirik, pertsonaiak dioena adierazi eta denen artean komentatuko dute.
- Hezitzaileak ondoren egin behar den proba azalduko die (proba gehienak bi edo talde gehiagoren artean egin daitezke, eta, beraz, 8-12 bat lagunaren artean egitekoak dira). Behar izanez gero, itxaron dezatela.
- Puzzle-pieza bat lortuko dute (osotara 5 puzzle-pieza daude).
- Proba gaingiduta, ondorengo pertsonaiaren bila joango dira. Eta horrela azkeneraino.

ADI: pertsonaiak berberak dira talde guztientzako, **azken kasuan izan ezik, zeinean talde bakoitzak berariazko pertsonaia izango duen.**

1. PROBA: Koka gaitzen

Mezu bat deszifratu (hasierako informazioa), ikertu behar den gaia zein den jakiteko.

2. PROBA: Enpresak

Jokoa, enpresa transnazionalak merkataritza-prozesua euren interesen arabera hainbat herriren artean nola banatzen duten ikasteko.

3. PROBA: GKEa

Joko kooperatiboa, merkataritza justuaren printzipioetako bat ulertzeko.

4. PROBA: Saltoki handiak

Ekintza-jokoa, benetan premiazkoa zer dugun ezagutzeko.

5. PROBA: Komunikabideak

Spot publizitario berezi samarra prestatu.

6. PROBA: Ekoizpena Hegoko herrialdeetan

Fabrika-jokoa/Esportazio-jokoa

AZKENEAN, BATERA JARRI: Ibilbide osoa burutu ondoren, denak batu eta talde bakoitzak zer bilatu duen azalduko du (4 proba eta 4 pertsonaia berberak izan dira denentzat; beraz, denen artean komentatu). Puzlea osatu, eta zer esan nahi duen eta ikerketaren ondorioak azaldu. Puzlearen piezek ikono bana daukate, ikertutako gaiekin erlazionatzeko.

GAIA: kirol-oinetakoak, futboleko baloia, kafe-paketea, CD-ROM unitatea, plastikozko panpina, txokolate-tableta. Egiazkoak izan daitezke. Gehigarrian aurkituko dituzue gaiei buruzko ilustrazioak.

7. Erabilitako materiala eta hezkuntza-baliabideak:

Ikertu behar diren gaien marrazkiak, GKEaren gutuna, testigantzen panelak. Puzleak (6 ezberdin, eta bakoitza 5 piezatan banatua). Proba bakoitzerako joko-materiala.

8. Jarduera egiteko espazioa:

Espazio irekiak, zabalak eta kanpoan kokatuak, ahal bada. Barneko gela batean ere bai.



3. Proben deskripzioa

1. PROBA: Koka gaitzen

Sarrera egin eta gutuna irakurri ondoren, gaiak banatu aurretik, detektibeen agentziaburuak lehen proba proposatuko die ikasleei.

- *Helburua: jokoak eta informazioa abiatzea, ikerkuntza-munduarekin erlazionaturiko dinamika oso bizia aurkeztuz.*

Mezu bat kodean daukan papera banatu, eta testua itzultzeko. Deszifratzen dutenean, zein gai ikertu behar duten jakingo dute, eta orduan agentziaburuak gaia bantuko die (marraskia ala gai erreala), etiketa edo azala eta guzti.

- **MATERIAL GEHIGARRIAK** (karpetan daude):
 - kode-orriak, talde bakoitzeko bana
 - itzulpena egiteko testua
 - gai bakoitzari buruzko marrazkiak

- **BESTELAKO MATERIALA**
 - lapitzak, borragomak

- **SOLUZIOAK:**

Ikertzaile estimatuak:

Eskerrik asko zuen arreta eta kolaborazioagatik. Konfiantza daukagu zuen lanean. Arazoaren muina zein den aurkituko duzuelakoan gaude, eta gure susmoak argituko dituzuela.

Honako gai hauek ikertu behar dituzue:



kirol-oinetakoak

txokolate-tableta

CD-ROM unitatea

plastikozko pampina

kafe-paketea

futboleko baloia

Zorte on

2. PROBA: Enpresak

Gaia merkaturatzen duen enpresaren egoitza. Lehenik, testigantza daraman panela aurkitu behar dute, irakurri eta hezitzailearengana itzuli, zeinak egin beharreko proba azalduko dien. Proba gaindituta, dagokien puzzle-pieza emango zaie.

- *Helburua: konpainia transnazionalen estrategia ezagutzea.*

Konpainia transnazionalek kostuak gutxiagotu eta etekinak handiagotzeko erabilitako merkatu-estrategia antzestu behar da, oso modu sinplean.

Eginkizuna nola bete behar duten azalduko zaie, ikasle bakoitza enpresa transnazional bateko arduraduna balitz bezala. Ondorengo sailak egongo dira:

- Lehengaiak: Helburua: produktuak egiteko lehengaiak lortzea
- Ekoizpena: Helburua: produktua egiteko langileak bilatzea (lan-eskua)
- Marketing eta komertzialak. Helburua: produktuen berri komunikabideetan ematea, saldu ahal izateko.
- Hondakinak: Helburua: ekoizpen-prozesuak uzten dituen hondakinak eta zaborra desagerraraztea.
- Finantzak: Helburua: enpresaren kontuak taxutzea.

Haur bakoitzari marrazki bat emango zaio, hitz bat eta azalpen txiki bat, produktuen ekoizpen-prozesu eta merkaturatzearen parte batekin zerikusia izango dutenak.



Horman 4 panel esekiko dira, imajinatutako lau herri ezberdinekoak (Albisinia, Borango, Kortaga eta Dullimey) eta informazio ugari emango dutenak. Haur bakoitzak esan behar du zein herrialdean ikertuko duen, eskuetan duen txartelak dioenaren arabera eta daukan informazioa kontuan hartuz.

- **SOLUZIOAK:**
 - Lehengaiak > Dullimey
 - Ekoizpena > Borango
 - Marketing eta komertzialak > Albisinia
 - Hondakinak > Borango
 - Finantzak > Kortaga
 - Batera jartzea: Non erabaki dugu lan bakoitza egitea? Zergatik?

- **MATERIAL GEHIGARRIA** (karpetan daude)
 - 5 afixa marrazkidun eta informazioa konpainia transnasionaleko sail bakoitzeko
 - 4 afixa herrialdeei buruz, informazioaz

- **BESTELAKO MATERIALA**
 - zelo edo *blue-tac*

3. PROBA: GKEa

Merkataritza justu eta kontsumo arduratsuen alde lanean diharduen GKEaren egoitza. Lehenik testigantza daraman panela aurkitu behar dute, irakurri eta hezitzailea dagoen tokira itzuli, zeinak egin beharreko lana azalduko dien. Proba gainditzen dutenei, dagokien puzzle-pieza emango zaie.

- *Helburua: munduko herrialde ezberdinen arteko harreman komertzial zein ekonomikoak gidatzen dituzten printzipioak ezagutzea; eta, aldiz, merkataritza justuaren printzipioak zeintzuk diren.*

Ekonomiari eta merkataritzari dagokienez, munduko nazioen artean dagoen erlazioa nolakoa den ezagutzea da helburua. Ikusteko, lehenik, joko kompetitiboa egingo da; eta ondoren, joko bera joko kooperatibo bihurtuko dugu.

Lehenik, aulkien joko ezaguna egingo dugu. (Jokalariak baino aulki bat gutxiago ipini behar da. Musika jotzen hasi, eta, isiltzen denean, aulki bat bete behar da. Aulkirik gabe geratzen dena eliminatu egiten da, eta aulki bat gutxiago geratuko da). Haur bakoitzak herrialde baten ordezkaritza izango du, konkretatu gabe. Jokaldi bat egin ondoren, irabazlea nor den ikusiko da.

Jokoa burutu ondoren, joko berbera beste modu batera egingo da: aulkien jokoen modukoa izango da, baina helburua beste bat izango da. Alegia, musika isiltzen denean, aulkien gainera igo behar dute denek, baina lurra ukitu gabe; hots, eserita, zutik edo lagun baten gainean. Jokaldi bakoitzean aulki bat kenduko da, baina, lehen jokaldian ez bezala, haur guztiek elkarri lagundu beharko diote, den-denek espazio-zati bana eduki dezaten aulkietan. Beraz, ez da inolr eliminatzen. Hala ere, gero eta zailagoa da jarritzea, aulkiak gero eta gutxiago diren arren, parte-hartzaileak berberak direlako.

Batera jartzea: Zer gertatzen zen lehen jokaldian? Zer ezberdintasun gertatu da bigarren bertsioan? Zein da gehien gustatu zaizuen, eta zergatik?

- **BESTELAKO MATERIALAK**
 - aulkiak, pertsona bakoitzeko bana, irrati-kasetea, musika-tresna...

4. PROBA: Saltoki handiak

- *Helburua: produktu bat kontsumitzera garamatzen premiei buruz gogoeta egitea, eta benetan beharrezkoak zaizkigunak ikustea.*

Kontua da, oso joko aktibo baten bidez, beharrezkoenak zaizkigun gaiez jabetzea.

Gutxienez 8 lagunek jokatuko dute (hots, bi talde batera), baina gehiagok ere bai, nahi izanez gero. Espazio irekia baina mugatua behar da. Lehenik, gai batzuk marraztuta dauzkaten txartelak lurrian sakabanaturik utzi behar dira; gai batzuk ezinbestekoak dira, beste batzuk ez hainbeste, etab.

Taldea bitan banatuko da. Behin txartelak lurrian banatuta, hezitzaileak seinalea egin ondoren, taldearen lehen erdia aterako da. Haren helburua ahalik eta txartel gehien batzea da, bat bera errepikatu gabe, denbora mugatua (minutu batean, gutxi gorabehera). Ondoren, bigarren talde erdia aterako da; lehen taldeko kide batzuk ukitzen saiatuko dira hauek; ukitua izan denak txartel bat utzi behar du halaberrez, baina, bere ustez, garrantzi gutxien duen gaia marraztuta daukana. Horrela, denbora pasatu ahala, lehen taldeko kideek premiazkoenak diren txartelak edukiko dituzte eskuetan. Orduan, jokoaren gerarazteko seinalea emango du hezitzaileak.

Alternatiba: bariazio batzuk egin daitezke, adibidez, harrapatua izan denaren eta harrapatzen duen pertsonaren arteko "lehiatxo" egin daiteke; hala nola, paineluaren joko edo bestelakoren bat.

Haur guztiak batuta, taldeko lehen zatiak gorde dituen txartelak begiratu ditugu, eta beste zatiak eskuratu dituenak.

Batera jartzea: zeintzuk izan dira taldeko lehen erdiak gorde dituen gaiak? Horiexek al dira benetan premiazkoenak?

- MATERIAL GEHIGARRIAK (karpetan):

- gai eta produktu ezberdinak marrazturik dauzkaten txartelak (hiruzpalau fotokopia egin behar-ko dira bakoitzeko, errepikaturik egongo baitira, eta ebakita).

- BESTELAKO MATERIALA
 - batere ez

5. PROBA: Komunikabideak

Enpresa handi, edo telebista, irrati, eta egunkarietarako lan egiten duen publizitate-agentzia baten egoitza. Lehenik, testigantza daraman papera aurkitu behar dute, irakurri, eta hezitzailearen ondora itzuli, zeinak egin beharreko proba azalduko dien. Proba gaituta, dagokien puzzle-pieza emango zaie.

- *Helburua: publizitatearen helburuak zeintzuk diren ezagutu, eta zergatik sartzen duten hainbeste diru.*

Kontua da, komunikabide handientzat diharduen publizitate-agentzia baten lana irudikatzea. Enpresa batzuek, adibidez, diru gehiago sartzen dute publizitatean edo marketingean langileen lan-baldintzak hobetzen baino.

Kasu honetan, ikasgelan edo ikastetxean daukagun objektu bati buruzko oso publizitate-spot erraza egingo da. Taldea bitan banatuko dugu; erdia saltzaileak izango dira eta beste erdia erosleak. Hezitzaileak zoriz aukeratuko du gaia, baina haurren irudimena lantzeko aukera emango duen gaien bat izan dadila, jakina. Produktu hori saldu behar dutela esan behar zaie, haren ezaggarriak aipatuz, bai, baina batez ere, irudimena landuz, objektuaren erabilpen berriak asmatzeko; ahal bada, jostagarriak eta original samarrak. Minutu batzuk utziko dira, saltzaileak prestatzeko. Ondoren, salmenta hasiko da: saltzaile bakoitzak bere eginkizuna beteko du. Saltzaile bakoitzak besteek nola moldatzen diren ez ikustea komeni da; bestela, originaltasuna galduko litzateke eta. Denak pasatu ondoren, erosleek bozka egingo dute, saltzailerik onena aukeratzeko.

Batera jartzea: Zein baliabide erabili ditu saltzaile bakoitzak? Zergatik aukeratu duzue saltzaile bat?

— BESTELAKO MATERIALA

- gelako edozein objektu
- lapitzak eta bozkatzeko papera

6. PROBA: Ekoizpena Hegoko herrialdeetan

Ekoizpen-, konfektzio- nekazaritza-espazioak (ikertzen ari den produktua zein den kontuan hartuz). Azpigaraturiko herrialdeetan kokatutako lantegiak, konpainia transnazional erraldoiek azpikontraturiko enpresak. Kakaoa edo kafea ekoizteko soro zabalak. Lehenik, testigantza daraman papera aurkitu behar dute, irakurri eta hezitzailea dagoen tokira itzuli, zeinak egin beharreko proba azalduko dien. Adi: azken proba honetan, talde bakoitzak bere pertsonaia propioa dauka. Proba gainditu ondoren, dagokien puzzle-pieza emango zaie.

— *Helburua: soroetako lanaren lan-baldintza gogorrek dakartzaten ondorioak ezagutzea, eta nazioarteko merkataritzak komunitateen biziraupenean daukaten eragina.*

Bi proba ezberdin daude; bata oinetakoak, baloia, panpina eta CD-ROMak ikertzen dutenentzako, eta bestea kafea eta txokolatea ikertzen dutenentzako.

6A PROBA (oinetakoak, baloia, panpina eta CD-ROMak)

Pertsonaiak lan egiten duen lantokiko baldintzak irudikatzen saiatuko gara. Haurrak ilaran jarriko dira, eta produktu bat egin beharko dute (paperezko kapela, dekorazio eta guzti), baina lankatean arituz (lanaren monotonia agerian uzteko, hain justu). Egunkari-paperezko orri bat hartuta, zenbaki bakoitza pertsona bat da.

- 1) papera erditik tolestu
- 2) bi triangelu tolestu
- 3) beheko bi zatiak tolestu
- 4) bi grapa ezarri
- 5) zeloaren erabiliz indartu
- 6) pegata edo gometa ipini
- 7) kolorezko pegata edo gometak ipini
- 8) "made in..." idatzi

Zortzi baino haur gehiago baldin badaude, aukera edo pauso gehiago eman. Monitorearen zeregina: arduraduna izango da, oso-oso estua izango da bere arduraren, gogorra, harroa, oihularia, iraintzailea..., lana ahalik eta azkarren bete dezaten (horretarako kapaz den haur batek ere bete dezake zeregin hori, hezitzailearen ordez).

Denbora mugatua emango zaie, ahalik eta kapela gehien egin ditzaten (minutu bat edo minutu eta erdi). Azkenean, dirua emango zaie lanaren ordain: adibidez, 10 zentimo euro ondo eginda-ko kapela bakoitzeko, diru hori egun osoko ordaina izan daitekeela esanda.

Batera jartzea:

Nola sentitu dira? Zein izan da monitorearen zeregina? Soldata horrekin bizi al daiteke? Lortutako diruz zer eros daiteke?

● BESTELAKO MATERIALA

- egunkari-papera, grapagailua, zeloa, pegatak edo gometak, txeke-talonarioa (ordainketak egi- teko; paper arrunta erabiliz ere irudika daiteke talonarioa).

6B PROBA (kakaoa eta kafea)

Bi taldeek batera egin dezakete proba hau. Horra jokoaren urratsak:

Haurrak Nikaragua edo Boli Kostako nekazariak izango dira, itxuraz, eta kakao- edo kafe-uzta saldu nahi dute Iparreko herrialde batzuetan.

Leku ireki bat aukeratuta, bertan kokatuko dira haurrak. Handik hurbil, bi aulki edo antzeko zer- bait paratuko da. Joko-espazio osoan, kartulina handiak barreiatuko dira Iparreko herrialde batzuen izenak daramatzatenak, horiek izango baitira produktuen erosleak.

Jokoaren gidariak esango du Iparreko herrialde bakoitzak zenbat pertsona hartuko dituen (hots, herrialde bakoitzak erosiko duen kakao- edo kafe-bolumena); txilibitua jo eta nekazariak korrika hasiko dira, aulkien artean pasatu eta leku egokian paratuz. Lehen txandan, denentzako lekua egongo da, urte ona izan delako eta, beraz, eskaria ere handia. Haurrak hasierako lekura itzuliko dira. Ondorengo txandetan, ordea, gero eta leku gutxiago egongo da (alegia, eskariaren bolu- mena aldatu egingo da); beraz, mantsoen dabiltzanek ezin izango dute euren produktua saldu. Ez dira eliminatuko, ez, baina besteak baino urrutiago kokatuko dira; hurrengo txandan, jakina, jokatu ahal izango dira, eta saia daitezke berriro parte hartzen. Baina baldintzak gero eta gogo- rragoak dira, gero eta leku gutxiago baitago kokatzeko. Adibideak:

1. txanda: herrialde bakoitzean 3 pertsona gehienez
2. txanda: berdin, baina Japonian pertsona bat bakarrik
3. txanda: herrialde bakoitzean 2 pertsona, Kanadan eta AEBetan izan ezik, non ezin den inor kokatu. Eta horrela aurrerantzean.

Aldaketak azaltzeko (zuritzeko), gain-produkzioa, gehiegizko eskaintza, eskariaren urritzea, etab. aipa daitezke.

Ondorioak: Zeinek jartzen ditu joko-arauak, Iparrak ala Hegoak? Zuen ustez, zer gertatuko da nekazariak ezin badute euren produktua saldu?

● BESTELAKO MATERIALA

- kartulina edo orri handiak, Iparreko herri inportatzaile batzuen izenak daramatzatenak (hau da, AEB, Alemania, Japonia, Italia, Frantzia, Espainia, Belgika-Luxenburgo, Erresuma Batua, Kanada, Holanda), bi aulki edo antzeko beste zerbait, txilibitu bat.





4. Azken ondorioak

Ibilbide osoa egin, proba guztiak gairitu eta puzzlearen pieza guztiak eskuratu ondoren, detektibe-taldeak berriro batuko dira buruzagiarekin. Puzzlea osatu behar dute; bertan, modu grafikoan azalduko da gai edo produktu bakoitzaren ekoizpen-prozesua, baina pieza bat falta dela konstatuko dira.

Buruzagiak esango die, pieza hori eskuratzeko, prozesu osoan parte hartzen duen beste pertsonaia bat ezagutu behar dutela. Baina, hori baino lehen, talde bakoitzak, eskema grafikoa erabiliz, puzzlearen esanahia azalduko du, eta ikerketa nola joan den: hots, gaiak edo produktuak ekoizpenetik kontsumora egin duen ibilbidea erakutsiko da.

Talde bakoitzak bere lana azaldu ondoren, buruzagiak azken ondorioa adieraziko du, azken pieza nori dagozkie kontura daitezela.

Gure ibilbidean zehar, produktuak edo gaiak ekoizteko parte hartzen duten pertsonaia batzuk ezagutu ditugu, direla Hegoko ekoizleak eta langileak, direla merkaturatzen dituzten enpresak, dendak, etab.

Zeintzuk izan dira alderdi harrigarrienak, edo ezezagunak? Zer ezagutzen zenuten alde aurretik? Injustiziarik aurkitu al duzue? Zuen ustez, guk egin al dezakegu zerbait?

*Horretan, hain zuzen, oinarritzen dira **merkataritza justua** eta **kontsumo arduratsua**: guk zeresan handia daukagu gure herrialdeetan, hiri, auzo, eskola edo familietan, eta zeregin asko. Edozein gai edo produktu erostea erabaki dezakegu, "atzean" zer dagoen galdetu gabe, edo produktu hori lan-baldintza duinetan egin izan ote den bila dezakegu, hau da, lan-zapalkuntzarik gabe, soldata justuak emanez, ingurumena kutsatu gabe, etab. Horixe da falta zen pieza: GU GEU.*

Puzzlearen azken pieza emango zaie, zeinean esaldi hau dagoen idatzita:

Planetak behar duten guztia ematen die pertsoneri; ez, ordea, gutziazten duten guztia.



5. Ibilbideen eskema

Talde bakoitzaren ibilbideak:

	1. TALDEA	2. TALDEA	3. TALDEA	4. TALDEA	5. TALDEA	6. TALDEA
Proben txanda ↓	1	1	1	1	1	1
	2	2	3	3	4	4
	3	3	4	4	5	5
	4	4	5	5	2	2
	5	5	2	2	3	3
	6	6	6	6	6	6

Garrantzitsua: taldeak aldi berean arituko direnez probak egiten, aldi berean bi edo talde gehiago aritzeko pentsatuta daude. Hiru ibilbide ezberdin daude, taldeak panel eta proba berdinetan ez pilotzearren; hala ere, guztientzako lehen proba beti izango da 1 zenbakiduna, eta azkena 6 zenbakia duena.



6. Proba bakoitzerako material grafikoen zerrenda

Sarrera/1. PROBA:

GKEaren gutuna
Ikertzeko gaien marrazkia
Kode-orriak
Itzultzeko testua

2. PROBA:

Enpresari buruzko testigantza-afixa edo txartela
5 afixa, marrazki eta informazioarekin
4 afixa, A, B, C eta D herrialdeei buruz

3. PROBA:

GKEaren testigantza-afixa

4. PROBA:

Saltoki handiei buruzko testigantza-afixa
Objektu eta produktu edo gai ezberdinak dituzten afixak

5. PROBA:


Publizitate-agentziari buruzko testigantza-afixa

6. PROBA:

Ekoizpenari buruzko 6 testigantza-afixa



7. Panelen kokapen-mapa eta testigantzak



Material gehigarria



Antsorenatarrak, Detektibe Pribatuak taldeko kide estimatuak:

Lehenik eta behin, gure buruaren aurkezpena: **Free Planet** izeneko GKEa gara, GKE bat zer den jakingo duzue, noski, ez da?. Beno, bada, GKE bat diru-irabazpenik gabe, mundua hobetzen saiatzen den entitate, elkarte edo erakundea da. Era askotako GKEak daude: batzuek Hirugarren Mundurako kooperazio-proiektuak egiten dituzte, beste batzuk gure herrialdeko pobrezia-aren aurka borrokatzen dira, edota arrazakeriaren aurka, edota ingurumena babesten... eta beste hainbeste gauza! Baten bat ezagutuko duzuelakoan gaude.

Gu bi noranzkoan lan egiten duen erakundea gara. Hau da, alde batetik, Hegoko pertsonak (batzuetan pobre deritzogunak, hain justu) aurrera egin dezaten saiatzen gara, eta, zehatzago esanda, leku egokian lan egin dezaten, inor bere bizkarretik aritu gabe, eta bizimodu duina izan dezaten. Beste aldetik, berriz, Iparreko jendea hezten saiatzen gara, aipatutako herrialdeetan gertatzen diren arazo negatiboak jabe daitezen, eta, aldi berean, jakin dezaten, besterik dirudien arren, geure eskuetan ditugula gauzak aldatzeko aukera eta ahalmena.

GKE erakunde txikia denez eta lanez lepo gabiltzanez, oso lan garrantzitsua egiteko laguntza eskatzera gatozkizue, biziki interesgarria izan daitekeena, bestalde: zuen buruzagiarekin hitz egin ondoren, edozer gauza egiteko eta edozein erronka gainditzeko taldea osatzen duzuela jakin digu.

















Ondorengo hauxe proposatzen dizuegu: ustez inozoak, arruntak eta egunerokoak diren gai edo produktuak ikertzea. Gureganaino iritsi diren hainbat informazioaren arabera, produktu horien atzean istorio benetan izugarriak ezkutatzen direla susmatzen dugu. Talde-lanean jardungo duzue, eta produktu bakoitzaren historia berregin beharko duzue.

Alderdi asko ikertu eta arazoaren mamian jotzeko gauza izango zaretela badakigu, eta gure taldean produktu horiek sorrarazi duten susmoa argitzeko gai izango zaretela ere bai.

Mila esker aldeaz aurretik... **ZORTE ON ETA LAN BIKAIN!**



a	
b	
c	
d	
e	
f	
g	
h	
i	
j	
k	
l	
m	
n	
ñ	
o	



p	
q	
r	
s	
t	
u	
v	
w	
x	
y	
z	
.	
,	
:	
'	
-	

















Lehengaiak

Zure sailak lehengaiak erosiko ditu, produktuak herrialde ekoizleetan egiteko, baina harreman hobea lor daiteke haiekin. Nora joango zinateke eroatera?




Ekoizpena

Zure sailak produktuak fabrikatu eta lan-eskua, langileak, kontratatuko ditu. Kostuak urritu behar dira, dirua beste hainbat gauzatan erabiltzeko, adibidez, publizitatean. Zein herrialdeetan kokatuko zenuke ekoizpen-fabrika eta langileak kontratatuko?



Marketing eta komertziala

Zure sailak produktuak ezagutaraziko ditu komunikabideetan, merkatuan saltzeko. Zein herrialdeetan egingo zenuke zuen produktuen publizitatea jendeak eros ditzan?



Hondakinak

Zure sailak ekoizpen-prozesuak sorrarazten dituen hondakinak eta zarama desagerraraziko ditu. Zein herrialdeetan botako zenituzke hondakinak errazen?



Finantzak

Zure sailak enpresaren kontuak daramatza. Baldintza hobek eskaintzen dituzten bankuek bilatzen dituzue. Zein herrialdeetan gordeko zenuke enpresaren dirua?




Albisia




- ◆ Hango biztanleek zerbitzuetan eta industrian lan egiten dute.
- ◆ Ia inor ez da nekazaritzan ari.
- ◆ Gobernu demokratikoa.
- ◆ Gobernuak asko kontrolatzen ditu kutsadura eta hondakinak.
- ◆ Oso komunikazio onak (TB, irratia, Internet, prentsa, errepideak, trenbideak...).






- ◆ Biztanleek nekazaritzan lan egin dute beti, baina, gero eta industria gehiago dago, batez ere hiriburuan.
- ◆ Langabezia handia: gero eta jende gehiago dago lanik gabe.
- ◆ Kutsadura handia hirietan, eta hondakinen kontrol eskasa.
- ◆ Gobernu ustela (duten agintea baliatuz, bertan geratu eta dirua xahutzen dute).
- ◆ Azpiegitura eta komunikazio txarrak (errepideren bat eta aireportua hiriburutik gertu).







- ◆ Biztanleek zerbitzuetan (negozio handietan) lan egiten dute bereziki.
- ◆ Azpiegitura onak (errepideak, aireportuak, trenak, metroa).
- ◆ Oso baldintza onak, bankuetan dirua utzi edo maileguak eskatzeko (paradisu fiskala).
- ◆ Gobernu demokratikoa.
- ◆ Kutsadura gutxi.









- ◆ Biztanleek nekazaritzan eta zerbitzuetan lan egiten dute bereziki. Esportazio asko (gauza asko saltzen dituzte beste herrialde batzuetan).
- ◆ Lanik gabe jende asko eta asko, nahiz eta kopurua azken urteko berbera izan.
- ◆ Aberastasun natural handia (oihan eta lur-zati zapaldu gabeak) eta lehengai ugari (egurra, mineralak, petroleoa...)
- ◆ Gobernu demokratiko berria.









Mike White
naiz,
enpresa
multinazional
handi bateko
buruzagia

Bost kontinenteetan saltzen ditugu gure produktuak, publizitate-kanpaina ugariei esker.


Latinoamerika, Afrika eta Asiako enpresa azpikontratatu asko ari dira lanean guretzat.

Batzuetan gure enpresa salatua izan da herrialde horietako langileez aprobetxatu omen delako. Hori ez da gure arazoa; edozein kasutan, beste enpresa azpigaratuen arazoa da.

Portaera-kode deontologiko baten jabe gara, salaketa hori gezurtatzen duena.

Hegoko enpresak kontratatzen ditugunez, lana sortzen dugu herrialde horietan.





Miguel García
dut izena eta
Bilboko
saltoki handi
batzuetako
gerentea naiz.

Produktu asko eta asko saltzen ditugu: jakiak, garbikariak, arropa, oinetakoak, ordenadoreak, jostailuak, musika, liburuak... Hau da, hemen denetatik aurki daiteke.

Mundu osoko markarik onenak dauzkagu.


Jendeak markarik onenak erosten ditu, garestiagoak izan arren.

Orain urte bete, pertsona batzuk gure saltokien aurrean manifestatu ziren; saltzen ditugun produktu asko, zioten, herrialde pobreetako jendeak egiten dituela, oso gaizki ordainduta.

Hori ez da gure errua. Gobernuena, baizik.

Gainera, bakoitza libre da nahi duena erosteko.





Pierre Dupond
dut izena,
eta
publizitate
-enpresa
bateko
buruzagia
naiz.

Publizitate-iragarkiak egiten ditugu mundu osoko enpresa askorentzat.


Komunikabide guztietan ateratzen dira: telebistan, irratieta, aldizkarietan, egunkarietan, filmetan, Interneten...

Enpresek diru asko sartzen dute publizitatean, jendeak produktuak eros ditzala lortuz.

Originala, sortzailea eta berritzailea izan beharra dago.

Maiz, pertsona ezagunak kontratatzen ditugu (kirolariak, zinemako edo TBko izarrak...) gure iragarkietan atera daitezen.





Mary Brown
naiz,
Australian
bizi naiz eta
GKE bateko
boluntarioa
naiz.

Gure GKEak giza eskubideen alde lan egiten du bost kontinenteetan.

Hirugarren Munduko langile askoren lan-baldintzak ezagutarazten saiatzen gara.

Oso soldata baxuak dituztela badakigu, aldiz, dirutza itzela sartzen dute publizitatean.

Jendeak egoera hau ezagut dezan nahi dugu.

Horrela presionatu ahal izango ditugu enpresak eta gobernua, egoera hori erabat alda dadin.



Maslina naiz
eta 19 urte
ditut.



Javako (Indonesia) fabrika batean lan egiten dut. Kirol-oinetakoak josten ditugu lantegian, Hong Kongeko enpresa batentzat, eta, enpresa horrek Amerikako Estatu Batuetara saltzen ditu.

Egunean 12 ordu lan egiten ditugu, ordu gehigarriak aparte. Lana oso gogorra da. Orduko 0,3 euro ordaintzen didate.

Lantegia gaizki aireztatuta dago, zikin eta usain txarrekoa da.

Komunera bost orduz behin joan gaitezke. Gure artean ezin dugu hitzik egin lanean.


Nire adiskide bat kanpora bota zuten haurdun zegoelako. Beste bat, lotan geratu zelako nekeagatik.

Nire adineko beste 8 neskekin bizi naiz, etxola batean; ez dugu ur edangarririk, ez argirik.

Beldur gara kexatzeko, berehala kanporatu gaitzakete eta.



Rosaline naiz,
17 urte ditut
eta
Filipinetakoa
naiz.



Manilatik kanpo lan egiten dut, hiriburuko fabrika batean. Ordenadoreentzako piezak muntatzen ditugu.

Lana oso aspergarria da; pieza bat, gero beste bat, eta beste bat... Eta horrela ordu askoan.

Lantegia oso zikin dago, eta nekez hartzen dugu arnasa.

10 urte nituela utzi nuen eskola, aita hil egin baitzen eta amari lagundu behar izan nion. Euro erdia baino gutxiago ordaintzen didate orduko.

13 urte nituela hasi nintzen lanean, eta orain arte hainbat lantegitan egon naiz, produktu ezberdinak egiten: elastikoak, prakak, oinetakoak, jostailuak... Baina egiten ditugun produktuak ez ditut inoiz ikusi gure auzoko dendetan.



Ababacar
Ndejei naiz,
eta 39 urte
ditut.



Kakao-alor handi batean lan egiten dut, Boli Kostan, nire herrian.

Lehen nire alortxoak neukan, eta han artoa, kakahueteak eta mijoa lantzen nituen. Baina lurrak gero eta txarragoak ziren eta ez zidaten bizirauteko adina ematen.

Landaredia Europako enpresa batena da, eta hara eramaten du kakaoa, Europara. Txokolatea egiteko erabiltzen da kakaoa.

Ez dugu ez lan-kontraturik, ez osasun-segurantzarik.

Astero ematen didate soldata, baina gero eta eskasagoa da, eta produktuak, aldiz, garestiagoak.

Txokolate-tabletaren truke ordaintzen den euro bakoitzetik, nik 2 zentimo baino ez ditut jasotzen.

Uzta biltzeko aroan lan handia izaten da, eta ia atsedeen hartu gabe lan egiten dugu. Gainerako hilabeteetan, oster, askotan ez dago lanik denontzat.



Minu naiz eta
8 urte ditut.



Sialkot-eko (Pakistan) lantegi batean lan egiten dut.

Larruzko baloiak egiten ditugu.

Bolada batzuetan asko josten ditugu, eta ordu askoan aritzen gara etengabe. Ezaguna denez, futbol-lehiaketa garrantzitsuak izaten dira noizean behin, eta beste herrialdeetako jendeak baloi gehiago saltzen ditu orduan.

Adin guztietako jendea dago lantegian, baina gehienak 5 urtetik 15 urte bitarteko haurrak gara.


Lurrean eserita lan egiten dugu. Arreta handia jarri beharra dago orratzekin ez ziztatzeko; baina, batzuetan, oso arin lan egitera beharturik gaudenez, ziztatu egiten gara, eta oso mingarria da.

Egunean 45 bat zentimo euro irabazten ditut.

Ez naiz eskolara joaten, ordaintzeko dirurik ez daukagulako.



Safine dut
izena, eta 15
urte ditut.



Port-au-Princen bizi eta lan egiten dut, Haiti-ko hiriburuan.

Egunean 11 ordu lan egiten dut panpinak egiten, lantegi batean.

Orduko 20 zentimo euro ordaintzen didate, baina kantitate hori aldakorra da, salmentak jaisten badira. Gainera, askotan ordu gehigarriak sartu behar ditugu, eta ez dizkigute ordaintzen.

Tailerra oso txikia da, baina beti gara asko lanean. Oso deseroso gaude, eta bero patsa egiten du beti.

Nik ez ditut inoiz ikusi gure auzoko dendetan, gure eskuz egiten ditugun panpinak.

Lana uzteko gogoa dut, baina hemen ez dago lan hoberik. Agian nire lehengusuak egin zuena egin beharko dut, beste herrialde batera joan.



Walter
García naiz,
eta 33 urte
ditut.



Nikaraguako nekazari bat naiz, eta kafea biltzen dut nire Aranjuez-ko kafe-olor txikian. Nire aita ere horretan ibili zen, eta aitona ere bai.

Kanpoko enpresei saltzen diegu kafea, eta haiek herrialde aberatsetara eramaten dute.


Iparreko herrialde batean ordaintzen den euro bakoitzetik, 87 zentimo Iparreko enpresetan geratzen da; 9 zentimo, berriz, gure herrialdera iristen da eta 4 baino ez guretzat, nekazariontzat.

Kafearen prezioa gero eta baxuagoa da, eta nekazari askok problema handiak ditugu bizirauteko. Egoera ez bada aldatzen, lurra utzi eta hirira joan beharko dugu lan bila.


Kafearen prezioa ez dugu guk ipintzen, herrialde aberatsek finkatzen dute.



2



3



"Planetak behar duten guztia eskaintzen die pertsonai;
ez, ordea, gutiziatzen duten guztia"


6



5





4





“Planetak behar duten guztia eskaintzen die pertsonei;
ez, ordea, gutiziatzen duten guztia”





"Planetak behar duten guztia eskaintzen die pertsonei; ez, ordea, gutziazten duten guztia"







"Planetak behar duten guztia eskaintzen die pertsonai; ez, ordea, gutiziatzen duten guztia"





"Planetak behar duten guztia eskaintzen die pertsonei; ez, ordea, gutziazten duten guztia"





"Planetak behar duten guztia eskaintzen die pertsonei; ez, ordea, gutiziatzen duten guztia"





Intermón
Oxfam

≡ MERKATARITZA JUSTIZIAZ

GINKANA: ANTSORENATARRAK, DETEKTIBE PRIBATUAK

Nazioarteko merkataritza aberastasun-iturririk handienetakoa da, baina albo batera uzten ditu milaka pertsona munduan, Hegoko eta Iparreko herrien arteko ezberdintasunak areagotuz. Eguneroko kontsumoko 8 objektuen jatorria ikertzeko aitzakiaz, ginkanan parte hartzen dutenek objektu horiek nork eta zein baldintzapetan egiten dituen aurkituko dute. Eta dena merkataritza solidarioa eta parekidea eraginez gizarte global justuagoa sortzeko asmoz, non gizaki guztiak bizitza duina izan dezagun.

ELKARTASUNERAKO JARDUERAK SORTA

Jokoa bide egokia da ulertu eta ikasteko. Arrazoi horretan oinarriturik sortzen da sorta hau, rol-jokoak eta ginkanak barne hartzen dituena, gazteenentzako egokiak. Joka horien bidez Hegoko milioika lagunek bizi dituzten arazo eta egoerataraz hurbildu nahi ditugu jokalaria, gizarte justuagoa eta orekatuagoa sortzeko modu berriak aurkez ditzaten, modu atseginean eraginez.

ISBN 84-8452-214-8



9 788484 522140



FUNDACIÓ
PERE TARRÉS
Servei Colònies
de Vacances



V236875

